

Nafar karia

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1992ko apirilak 17 / II. urtea / 20. zenbakia

Joku-garbi eta laxoa, pilota zaharra

Amen eta Omen



AINGERU EPALTZA

Iazko Aberri Eguneko ekitaldi, mintzaldi, kantaldi eta asma ahala aldi guzietako ohizko hitz huts, espantu eta keinu erritualen artean, batek baizik ez zuen nigan halako 'fetxa señalatubek' sortarazten duten arrotasuna inarrosi. Iparraldeko abertzale batzuek Baionako hilerrira joan eta lore sorta utzi zuten Agosti Txaho joan den mendeko idazle eta ameslari zuberotarraren hilibian. Ez naiz oroitzen egunkariak, hau barne, lekuri eskaini zioten ekintza horri, baina neri hunkigarria gartatu zitzaidan orduan.

Aberriaren kontzeptuak norberarengan eskatzen duen barneratze horrek badu ikusteko haundia Ernesto Săbatok bere libururik ezagunenean aipatzen dituen 'heroi eta hilibiekin'. Hain juxtu ere, uste dut euskaldunen artean zer-nolako Aberria nahi dugun erabakitzerakoan dugun begi-bistako desadostasuna, Aberri Egunean are ageriago gelditzen dena, gurtu beharreko heroi eta hilibiak zein diren bat etortzeko dugun funtsezko ezina baizik dela.

Alde horretatik, ez zait makala iruditzen zenbait abertzaleren gogoko heroi, hamaika moru, frantses edo espainolen kaskezurrak hautsi zituen errege edo militante konprometua izan beharrean, amets egin eta bere ametsak papere-ratzeko erreztasuna zuen Xaho bezalako bat izatea. Hain segur ere, gauzak bestela doazkigulako marka izanen litzateke Bazko Igande bakoitzean, batasun ezinezkoa ezean, Aberri honekiko lotura senditzen duen bakoitzak lore sorta bat utziko balu gustoko idazle-ameslarien hilibian, horrek erran nahi bailuke, agian, Herri honek amets egiteko ahala berreskuratu duela.

Halakorik inoiz egiten hasiko balitz, neri, faborez, astalarrosak ekarri.

Lehen, pilota joku guztiak soropiletan jokatzen ziren, eskuz zein larruzko goantekin. Frontoi ireki hauetan ia egunero aritzen ziren Euskal Herriko herri gehienetan. Hortik, geroago, modalitate franko sortu ziren, apurka apurka mende honetan ia galdu direnak. Hortik errebotea, pasaka, laxoa, joku-garbi, eta abar. Nafarroan soilik laxoak du

gaur egun nolabaiteko bizia, Baztan eta Malerreka aldean egindako lanari esker. Orain, ordea, Joku-garbi I Txapelketa zabaldu da Orotz-Betelun, hemen ere zenbait zaletuk paratutako gogoez bul-tzatuta.



Barnean

URA



Lurpeko urdunek gordetzen duten erreserba izugarriez / III

ARDIBIDEAK



Elkartea sortu da bide zahar hauek babesteko / VII

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Santiago Garcia pintorearen lana ikusgai dago Iruñeko Cafe-Galeria Lacava, Iñigo Arista Kallean dagoena. Erakusketa 'correspondencia' izenarekin aurkeztu du egileak, eta paperean egindako obrak dira. Datorren asteko igandera arte, hilak 26, egonen da zabalik.

Jose Luis Mayor artistaren erakusketa ikus daiteke Gotorlekuko Mistoen Pabilioian, maiatzaren 3a arte. 'Parisen erorketa' izenburupean aurkezturiko erakusketa hau, Iruñeko Aurrezki Kutxa Muzizipalaren laguntzarekin prestatu da.

Javier Muro eskultorearen lanak ikus daitezke Nafarroako Aurrezki Kutxaren kultura aretoan apirilaren 30a arte. Erakusketa hau 'Sormenari laguntzak' kanpainaren barruan dago, artista gazteei laguntza emateko. Arratsaldetan ikus daiteke, zazpietatik bederatzietara, asteko egunetan, eta jai egunetan eguerdiko hamabietatik ordubietara.

ZINEMA



'Arka galduaren bila' Nire pony ttikia' eta 'Oz-eko azitia' pelikulak eskainiko ditu Iruñeko udalak datorren astean, haurrentzako euskaraz prestatu den programazio kulturalaren barruan. Lehendabizikoa filma, Steven Spielberg zuzendariarena, asteazkenean izango da, hilak 22; bigarrena, marrazki bizidunak, ostegunean eskainiko dute, hilak


Orotz-Beteluren inguruak

Orotz-Betelun asteburu ona igarotzeko parada dago asteburu honetan. Itoizko urtegiaren kontrako koordinakundeak antolatutako gau-pasarekin. Horretaz gain, pilotazale guztiendako ekitaldi politik izanen dira bertako frontoian, hasi berri den Joko-garbi txapelketako partiduekin.

Orotz-Betelu Artzibarraren barruan izan zen 1845ra arte, orduan udala osatu bait zuen. Zonaldearen burua izanda ere, bere populazioak atzerakada nabarmen jasan du —ibar hauetako zonalde guztiak bezalaxe— mende honetan. Egun, inguruko herri asko ia populaziorik gabe daude.

Orotz-Betelutik ibilaldiak egin daitezke inguruko mendietara, bai Ponsoroara, nola Juandetxakora. Biak ikusgarriak eta zail samarrak.

Azparrenen ere Baigura edo Maitzeseko bidea hartu daitezke, edota herrian bertan da-



goen patxadaz gozatu.

Eta ezti goxoa edo kitarraren inguruan une lasaiak pasa nahi baldin baduzue, hurbil zaitezte Lakaberaino, Nafar-

hyppien —benetazkoak—, azken topalekua. Hori bai, sarreraren erromatarrez moztortutako zaindarekin topo egiten baldin baduzue, ez harritu.

23, eta hirugarrena datorren ostiralean. Guztiak arratsaldeko bost t'erdietan izango dira, Aita Salestarren aretoan, eta sarrera dohainik izanen da.

'Larrua' izeneko filma ospetsua ikusgai dago datorren ostegunean, hilak 23, Tafallako Español

zineman. Liliانا Cavanik zuzendutako pelikula honetan aktore ezagunak agertzen dira, hala nola Marcello Mastroianni, Burt Lancaster, Claudia Cardinale. Italiako Napoles hirian kokaturik dago, hiperamerikako ejerzitzaoren askapenaren garaian, bigarren gerrate mundialean.

'Marcelino pan y vino' eta 'La pequeña picara' filmak asteburu honetan ikus daitezke Leitzako zineman. Lehendabizikoa, igandean eskainiko dute, hilak 19, eta bigarren astelehenean izango da. Bi pelikula interesgarri hauek arratsaldeko zazpietan aurkeztuko dituzte.

MUSIKA



'Ke Ti Kagas' eta 'Multiples Navajazos' musika taldeak ari-tuko dira gaur gabean Altsasuko gaztetxean. Kontzetua hamar t'erdietan izango da eta sarrera dohainik izango duzue.

'Malos tiempos' taldea Arguedasen arituko da bihar larunbata, hilak 18, Los Monegros lokal-tan. Kontzertua gabeko hamaitketan izango da eta sarrerak 300 pezetan salduko dituzte. Ekitaldia Ongarri peñak antolatu du.

'Alaska' musika taldearekin gaupasa izango da bihar larunbata, hilak 18, Orotz-Beteluko pilotalekuan. Itoiz koordinakundeak antolaturik. Ekitaldia gabeko bederatzietan hasiko da, asanblada informatibo batekin, eta hamarretan herri afaria egongo da pilotalekuan. Azkenean, goizaldeko ordubatean musika hasi eta gau osoa iraungo du.

MINTZALDIK



'Naturaren kontserbazioa Nafarroan: Ehiza' gaiari buruz arituko da Alberto Otamendi datorren ostegunean, hilak 23, Larraungo euskara zerbitzuak eta Mitxasenea kultur etxeak antolaturiko Aste Kulturallean.

'Nola prestatzen den hementengo bazkari tipiko bat' izeneko mintzaldia eskainiko du Paco Aiestaranek datorren asteartean, hilak 21, Larraungo Aste Kulturalaren ekitaldien barruan.

ERRAN DUTE

Etakideek fabore bat egin nahi baldin badidate, nitaz ahaztu daitezela.

Juan Cruz Alli
Presidentea

«Oraingo Aste Santuak ez du zer ikusirik duela hamarkada batzuenarekin».

Jimeno Jurio
Etnografoa

«Zuek ere gezurtxoak esaten dituzue noibehinka, ezta?».(umeei)

Jose Maria Zirarda
Artzapezpikua

«Neretzat atsedena hiru astetan leku batean egotea da».

Julio Sabala
Imitatzailea

ASTEKO PERTSONAIK

Alberto Gonzalez



NUPko errektorea

Fermin De Luis



Futbolaria

Wenceslao Lekunberri



Osasunzalea

Errektoreak bere dimisioa aurkeztu zion joan den asteartean Juan Cruz Alli presidenteari, postuan seu hilabete bete eta gero. Gonzalez kexu agertu zen gobernuak erakutsitako konfiantza faltagatik, eta arrazoiak ez zaió, ez falta. Talde guztiak bere izendapena gaitzetsi eta gero, Errektoretza joku politikoaren helburu bihurtu da hilabeteotan, eta PSNk aurrekontuak onartzeko gai bezala ere paratu zuen. Astelehenean, Sanz presidente ordeak, gobernuak Goñizalezen zesea eztabiadatzeko prest zegoela adierazi zuen, eta Gonzalezek dimisioa eskatu zuen.

Lodosako atzelari azkarra Osasunarekin joka zitekeen berriro ere heldu den igandean, urtebete ondoko pasata lesionatuta eman eta gero. Atzelariak berna puskatu zuen Teneriferen kontrako partiduan, eta geroztik bere lesioa sendatzeko prozesua ohi baino makalago joan da. Honen ez ditu, baina, zapuztu Ferminen gogoak, eta Zabalzak deialdian sartuko du, seguruenik, larunbatean. Zaletu gorritxoek hain gogokoak zituzten hiru atzelari horietatik —Pepin, Castañeda, De Luis—, baina, bera ibiliko da bakarrik. Denbora ez da alferrik pasa.

Joan den astelehenean Wenceslao Lekunberri 'Uve' hil zen, inoiz futbol zelai batetan aritu ez arren, Osasunako jokalaria azken 80 urtetan. Asteartean lurperatu zuten Iruñean, eta bertan izan zen Fermin Ezkurra, Osasunako presidentea, eta misericordia etxeko bere lagunak. Astelehenero partiduari buruzko galderak egiten zizkioten bere lagun zein ezagunek, eta berak mantso-mantso, erantzun bera ematen zuen. «Estu eta larri ibili naiz, belanuk min ematen dit eta». Osasunak aste honetan, urte askotan zehar bere jokalaririk popularrena izan dena galdu du.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10etara... **Xinguli Mangulu** haurrendako saioa.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 13.00etatik 13.45etara... **Informazio Saioa** Baztan, Malerrieta eta Bortzirietako informazioa. Elizondo, Bera eta Lesaka egunero.

HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9

Asteazkenean FMn 21.00etatik 22.00etara... **Gautxori** irratisaio musikala. Narrazioak.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazkenean 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazkenean 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

Lurpeko ura: hori urtegia!

Nafarroako ur bolumenaren % 25 lurpean dauden urdunetik ateratzen da, ia 1.325 hektometro kubiko. Hau ez da, baina, urpean aurki daitekeen ur guztia, iturrietatik, euria egiten duenean ateratzen dena ere bada. Izugarritzko erreserba hau aprobetxatzea ez da, baina, aztertzekoa, baina bai iturburuetatik ateratzen denaren ustiapen egokia. Hori dela eta, Nafarroako Gobernua zenbait azterketa egiten ari da erreserba hauetarako. Duela gutxi Errietzuko urdunari buruzko emaitzak aurkeztu zituen.

PATXI ULAIAR / IRUÑA

Lurpean dagoen ura ez dago, pentsa zitekeenaren kontra, urtegi edota laku erraldoietan, horrelako batzuk egonda ere. Ura harkaitzen arteko zirrikitu guztietan dago, hutsune nimiño orotan, lurretik sakonera jakin bateraino. Hori saturazio zona deitzen zaio. Hortik behera iragazkaitz aldea dago. Ura pasatzen eta mugitzen uzten duten zonaldeak urdunak dira.

Han biltzen den ur bolumenaren ia gehiena euria edota ibarren filtrazioetatik dator. Ur hauek oso mineralak dira, eta oso kalitate onekoak dira. Hala ere, poluzioaren aurrean oso ahulak dira. Nafarroako zonetako garrantzitsuak, Aralar, Urbasa, Lokitz, Larra eta Leirekoak dira.

Urbasan bi urdun berezita aztertu ahal izan da, orokorrean urtero 344 kilometro kubiko ematen dutenak. Gogoratu behar, Esako urtegiak 470 kilometro kubikoko kapazitatea duela. Bata, Araban, Zadorra-Andoin izenekoak, 25 kilometro karratuko aldea hartzen duena; eta bestea Urbasakoa, nagusia. Honek 175 kilometro karratu hartzen ditu. Andimendia ere honen barnean sartzen da, eta bertako urdun garrantzitsuenak hiru dira: Artetakoa, 100 kilometro karratuko aldea hartzen duena; Errietzukoak, 80 kilometro karratu; eta Ibero-Etxaurikoa, 25 kilometro karratutan dagoena.

URDUNEN URA ITURBURUETATIK Hortik ateratako ura iturburuetatik ateratzen da, sartutako ura mail orokorra baino gorago denean. Urederrako iturburutik, horrela, 4,5 m³/segunduko ateratzen da batezbeste urtero; Artetakotik, 3,25 m³/segko; Errietzuko, 2,25 m³/segko; Etxauri, 0,25 m³/segko; eta Ibero, 0,25 m³/segko.

Aralarreko errekurtsuak 206 hektometro kubiko dira urteko, Gipuzkoa eta Nafarroaren artean banatuta. Aipatzekoak dira Iribaseko urduna eta Latasakoa. Lokitzek 89 hektometro kubiko ematen du urtero, Alboron, Antzin, Uxuenebilla eta Itxakoko iturburuen artean banatuta.

Larrako zona ere oso garrantzitsua da bere baliabideei dagokienez —240 Hm³—, baina hauek banatuta daude Frantzia, Aragoa eta Nafarroaren artean. Lurralde honetan gelditzen dira 73 hektometro kubiko urteko.

ARTETA ETA UREDERRA Iturburu batzuetatik ateratzen den ur kopurua dela eta, ezinbestekoa dirudi ur hauen erregulazioak, eta bereziki azpimagarriak dira bere garrantziagatik Arteta, Larraun (Iribas), Ubagua (Errietz) eta Urederrakoa.

Artetak, Iruñetik 25 kilometrorora, ez du urtetan zehar oreka handirik, eta euriaren arabera da oso. Horrela, ur-emaria 30 eta 0,35 m³/segko aritu daiteke, euri garaiak edo uda garaian egonez gero. Ur hauek kalitate aparta dute, eta Iruñeko ur hornidurako erabiltzen dira.

Iribasko iturburutik ateratzen den ura Lekunberri eta Irurtzungo ur hornikuntzarako erabiltzen da. Batezbesteko ur-emaria 2,5 m³/sgkoa da, baina, gehienak bezala, garaiaren arabera da. Errietzuko iturburua Izarbeibar eta Santa Krutzeko mankomunitateko herrien ur hornikuntzarako erabiltzen da, eta bere inguruan dagoen ur eskeintza dela eta Nafarroako Gobernuak azterketa zenbait egin du, ur-emari ekologikoa mantendu ahal izateko.

Baina Urederrako iturbura da azpimagarrienetakoa, bera baita Urbasako aterabiderik garrantzitsuenak. Ur garai handietan 50 m³/sgkoraino hel daiteke. Izan ere, Urbasako estruktura



Urederrako iturburutik ateratzen da Urbasako ura.

geologikoa aproposa da horretarako. Euria bota bezain laister, aurretik landutako bidea egiten du urak, eta ibilbide azkarra baten ondoren, Urederrara eramaten

du. Horrela, euriaren ondoren, iturburuen erantzuna ia berehalakoa da. Aterabide hau, baina, bi puntutatik egiten da, zenbait metroetatik elkarrengandik urrun.

Uda garaian ere putzuen bidez aprobetxatu daiteke ura

P.U. / IRUÑA

Nafarroako Gobernuak Herri Lanetarako Zerbitzuak Errietzuko urdunari buruz berri duen azterketaren arabera, bertako ura aprobetxatzekoa da baita uda garaian ere, iturburuak behar adina ura ematen ez duenean, putzuen bidez. Bertako oreka gordezko, baina, Ubagua ibaiaren ur emari ekologikoa gorde beharko litzateke, eta horretarako ateratako uraren kopuru zehatz bat ibaira botako litzateke.

Izan ere, ura bonben bidez ateratzen denean, iturburuetatik ateratako agortzen da nabarmen, eta erreka lehorte egin daiteke baita ere. Hori gerta ez dadin, nahikoa litzateke 120 l/segundoko bolumena berriro ibaira

botatzearekin. Javier Castiella bertako zerbitzuetakoaren usteetan, horrelako ustiapenak ez luke inolako eraginik urdunaren errekurtsuetan, eta posible egingo luke Izarbeibarreko Mankomunitatea zabaltzeko proiektua. Horrela, 20.000 bizilagun hornitzeko erabiliko litzateke ura.

Metodo bera erabil zitekeen ere Nafarroako beste hainbat urdunetan, hala nola, Artetakoa edo Lokizkoetan. Kontutan hartuz bertan biltzen den ur kopuru izugarria, alternatiba litzateke lur gaineko urtegien aurrean.

Ur horien kalitatea aparta da, oso mineralizatuak direlako, baina desberdinak dira zonaren arabera. Aipatutakoetan Erribera aldekoak baino kalitate handiagoa dauka urak.



Artetako ura Iruña hornitzeko erabiltzen da.

Joko -Garbi eta Laxoa: Pilota zaharra

Pilotaren aintzinako modalitateen artean dugu joko-garbi eta laxoa. Lehendabizikoa Nafarroan ia zeharo galduta, Orotz-Betelun hasi berri da txapelketa bat, pilotari baxenabartar eta bertako batzuren partaidetzarekin. Laxoa, bitartean, Baztan eta Malerreka mantentzen da doi-doi, urtero txapelketak egiten badira ere. Biek zaletuen ahaleginei esker diraute.

Joko-garbi berriro Orotz-Betelun

MATJIN KAPITANSORO / IRUNEA

Joko-garbia, aspaldiko garaian Euskal Herri osora zabalduta zeuden modalitatekoa da, nahiz eta egun soilik Lapurdi eta Nafarroa Beherean indarra izan. Pilotako aintzinako beste modalitateak bezala —laxoa, errebotea—, apurka apurka galdu egin da, eta zaletu batzuen gogori esker dirau oraindik, federazioaren inolako onespenei jaso gabe.

Zaletu horietarikoak dira Javier Etulain eta Orotz-Betelu eta Mezkirizko pilota taldeak. Duela hamar bat urte osatu zuten Nafarroan jokatzen den pilota txapelketarik interesgarriena: Bost-Kirol. Orduko asmoak bi ziren: sharea nolabait berreskuratzea, eta frontoiko jokalaririk osatuen eta konpletuena ateratzea. Bi helburuak lortu direla ezin uka. Arrosagari luzaidearra aspaldiko pilotaririk konpletuena Bost-Kirolatik atera da, eta baita Larrea shareko munduko txapeldua ere.

Horrela, eta Olinpiaden antzeko zerbait, bost modalitate —pala motza, larruzko paleta, share, gomazko paleta eta eskuak— bildu zuten txapelketa izugarri nekosoan. Zaletuek ongi erantzun omen zuten, eta pilotari ikusgarriak atera dira hortik.

Ondoren, joko-garbia sartu zuten gomazko paletaren ordez, Etulainek adierazi duen bezala,

«azken hau ezin bait da bertako modalitate hartu».

JOKO-GARBI PALETAREN ORDEZ Aurten ekin diote apostu berri bati, eta Joko-garbi txapelketa antolatu dute Orotz-Betelun. Bost-Kirolarendako entrenamendu moduan egiteko, eta nolabait berpizteko modalitate hau, Nafarroan desagertu hurren dagoena.

Gaur egun soilik Iruritako hiru mutikok jokatzen dute joko-garbian Nafarroan. Eta jokatu ere Gipuzkoan jokatu, bertako txapelketan. Nafar Federazioak zeharo ahaztuta, bere kabuz aritzen dira, eta lehengo asteburuan finalera heldu ziren Gipuzkoan egin zen txapelketan.

Joko-garbia hemen bultzatzeko asmoz, bederatzi bikote osatu dituzte antolatzaileek, binakoak, eta horretarako formula berezia bilatu dute. Bikote bakoitzean lehen mailako pilotari bat izanena da —bestaldeko sei eta Iruritako hiruak— eta bestea, bost-kirolen jokatzen ohi duten horietakoa, afizioa zakukada duen horietakoa.

Partiduak berrogeira izango dira, baina hogeitamarrera helterakoan, soilik bigarren mailakoak arituko dira jokuan, eta besteak erretiratu dira. Honekin, Etulain horren antolatzailetariko batek adierazi duenez, maisuengandik ikasteaz gainera,



Frontoi irekietan jokatzen zen behialan joko-garbian.

XABIER LANDA

gazteek ere ikasten duten ikusi nahi da, lehia orekatuago baten bidez.

BAXENABARREN JARRERA ONA Etulainek hitz onak baino ez ditu

Orotz-Beteluko txapelketa jokatzen hurbildu diren Nafarroa Behereko jokalarientzako, «musutruk etorri bait dira». Bi baigorriarrar, Donapaleutik bes-

te bi, eta beste bi Donibane Garazitik, «eta izugarriko gogorekin. Joku bikaina dute, eta gaur egungo Frantziako txapelkunak ere etorri dira: Baigorriko Orkomiendi eta Donibane Garaziko Larramendi».

Oraingo helburua da modalitate hau nolabait zabaltzea, baina horretarako funtsezkotzat dute federazioaren inplikazioa kirolan. «Hemengo federazioari soilik dominak eta federazioko torneoa interesatzen zaizkio, eta joko-garbi eta beste antzeko modalitateak —laxoa eta aurrera ateratzen badira zenbait jende egindako lanari esker izango da, ez federazioari esker, inondik inora».

JAIMERENAREN LANA AIPAGARRIA

Joko-garbiren historia Nafarroan egiterakoan Jesus Jaimerena Iruritako apaiza ezinbesteko erreferentzia da. Berak egindako lanari esker bertan pilotari franko sortu ziren, orduan erremontera pasako zirenak, beste aukera garbiago ez izatean. Horietakoen artean erremontista ospetsuak, hala nola Mikelarena, Ripa, Urrutia edota Olondritz. Bere garaian Gipuzkoako zenbait herritan ere izan

zuen garrantzia joko-garbiak, eta Mujika Billabonako pilotari handiak ere modalitate honetan hasi zuten pilotarekiko harrëmana.

Jokatzeko era ez da gehiegi aldentzen erremontetik, baina, eta aspaldiko joku guztiak bezalaxe, frontoi ireki zein itxian joku daiteke. Irekian izanez gerõ, hirunaka jokatzen da, bi aurretik eta bestea gibelean, eta itxian jokatzen bada, binaka. Errebotera ere jokatu daiteke zesta berberekin. Berrogeitamar tantora jokatu ohi da, eta horretarako behar den zesta, gaur egun soilik Azkainen egiten dute.

Joku honek kolpean du berezitasun handiena. Erremonten pilotak zesta osoa zeharkatzen du. Zesta-puntan, ordea, hiru mugimendu egiten dira: pilota jaso, preparatu, eta bota.

Joko-garbian, ordea —eta hortik bere izena—, pilota jaso bezain laister jaurtitzen da, baina kolpea eman gabe. Horrela, esku-muturrak bi uneko jokua egiten du pilota hormaren kontra bidaltzeko. Egun, indar handia du jokuak Ipar Euskal Herrian, Etulainek esaten duen bezala «han jokua mantentzeko benetako gogo eta grina izan dutelako».



Egun Lapurdi eta Nafarroa Beherean du indarra.

Joko -Garbi eta Laxoa: Pilota zaharra

Laxoa, Baztan eta Malerrekan

M.K. / IRUNEA

Pilotako aspaldiko modalitateen artean mantentzen den zaharrena batzuren ustez— laxoa dugu, egun soilik Baztan eta Alduidetan jokatzen dena. Errebotearekin antza handia dauka, eta zenbaitek diotenez, erreboteak berak laxoan izango zukeen jatorria.

Behialan, egunero jokatzen zen Nafarroako herri frankotan, baina gutxinaka garrantzia galduz joan zen, horretarako behar diren frontoi ireki asko bota eta bigarren pareta paratu zutenean, eskuz jokatzeke. Horrela, egunero jokatzen— beste garaietan ohizkoa zena— larunbat eta igandetan jokatzerara pasa zen. Geroago, soilik herriko festetan edo apostuetan.

Joko-garbian bezalaxe, Jesus Jaimerena iruritarra hasi zen orduan laxoa bultzatu nahian, eta 1961an antolatu zen Baztan-Erekako I. Txapelketa. Berpiztu zen orduan zaletasuna eta txapelketak 1965ra arte iraun zuen.

70eko hamarkadan bakarrik Baztango Irurita eta Arraiotz eta Malerrekan Doneztebe eta Oitzek gordea zuten oraindik laxoa. Jokia festetara eta aparteko eguneretara mugatzen zen, baina 1980an osatu zen Laxo Elkarte, kirola bultzatzeko ahaleginak biltzearen. Urte berean Baztan-Erekako laxo txapelketa antolatzeari ekin zitzaion berriro ere, urtetik urtera huts egin gabe mantendu dena.

BOTARRIAK ETA ESKASAK Egund, zelai errektangularrean jokatzen da laxoan, 50-70 metrotako luzerakoa eta 12-20 metrotako zabalerakoa.



Iruritarako frontoian laxoan jokatzen.

Talde bakoitzean lau jokalaridaude: sakalaria, saka egiten duena; berezia; eta bi kuartoak. Jokalariek larruzko guanteak eramaten dituzte: Guante motz edo kuartoa; guante erdia edo berezia, eta guante handia edo sakalaria.

Jokalariez aparte, txatxaria dago, tantuak, jokuak eta eskasak abesten eta zenbatzen dituena.

Bi taldeak elkarren parean paratzen dira, eta saka egiten duena dagoen pareta bakarrari begi-

ra. Sakea botarritik egiten da eta errestoa bai airez nola lehendabiziko boteaz egin daiteke.

Tantua modu ezberdinez lortu daiteke. Falta da pilota ertzetan dauden 'eskas' izeneko marretatik kanpo bota eginez gero eta baita erdian dagoen eskas ere gaintzen ez bada edota giblean dagoen paretatik gora joaten bada pilota. Tanta da zelaia alderik alde pasatzea ere.

Halaber, eskasetik ateratzén bada pilota, barruan botea egin

ondoren, bigarren jokaldi bat egiten da. Horretarako marra bat paratzen da pilota atera den lekuan, eta bi taldeek aldatzen dute tokia zelaian. Jokia seinalizatutako marran kokatzen da, eta marra pasako duen taldeak irabaziko du puntua. Lehen, hamar-hamabi jokuetara egiten zen partida bakoitza, baina azken urteotan berderatzieta jokatu ohi da. Joku bakoitza zenbatzeko orduan, tenisen antzera egiten da: kintze, treinta, korenta, eta jokia. Kirol

guztiekin bezalaxe, laxoak ere bere idoloak izan ditu, eta aipagarriena Perkain alduidarra. Bi partiduguztiz aipagarri jokatu zituen bere garaian. 1793an, bere herrira, eta herbesteratu izanda ere, jokatzerazazaldu eta irabazi egin zuen. Gendarmeen burua ikusi omen zuen jende artean eta pilotakada batez utzi zuen konorterik gabe. Orduan aprobetxatu zuen alde egiteko. Hurrengo urtetan Tolosan jokatu zuen Harostegiren aurka, eta baita irabazi ere.

XABIER LANDA

mintzoak

Bigarren mailako bezeroak

● Hemendik aurrera esango dudanguztia, Lan Kide Aurrezki Kutxakozuzendari Nagusiari bideratzen diot. Elbarria naiz eta gurgildun aulki elektronikoko batez mugitzen naiz. Iruñeko Iturrama auzoan bizi naiz eta Lan Kide Aurrezkiak Pio XIIean duen sukurtsaleko bezeroa nauzue orain arte. Zeren eta, mila arrazoi eta bost ditudala oso haserre egoteko Kutxa honetako zuzendari nagusiarekin.

Orain dela lau bat urte konturatu nintzen Pio XIIeko sukurtsala erakitzen ari zirela, eta orduan eskatuen lasaitasunez eta apalki, beharrezko argudioak emanaz, lokala hori helgarria izan zedin. Saiatuko zirela erantzun zidaten. Hurbiltzen nintzen ia-ia bakoitzean kekatzen nintzen eta gogorarazten nien; bueno

ba, aldi bakoitzean aitzakia ezberdin bat entzuten nuen.

Udalak ez ziela baimenik eman; Iparralderantz ematen duela; arkitetoak izan direla, baina ez dakitela noiz hasiko diren lanetan; eta antzeko beste batzuek. Jadanik lau bat urte igaro dira koska ziztrin baten arazoa konpontzeko, oraindik irtenbideratu gabe jarraitzen duena.

Zuzendari Jauna, ez dakit konturatzaren zeinen ongi izorratzen gaituzuen. Laguntzarik gabe ezin gara sartu zuen lokaletara, eta beraz, norbaitek laguntzen digun bitartean eguraldiaren kapritxo guztiak jasaten ditugu. Gainera, presa dugunean kalte gehiago egiten digu norbait bilatu behar izateak guri laguntzeko. Dena dela inori ez dio graziazirik egiten beste inoren menpe egon beha-

rrak (beharturik).

Prentsan eta gainerako komunikabideetan ere ikusten dugu oso ongi doakizuela ekonomikoki, hortaz, diru arazoengatik ez da. Beraz, norkonbentzi nintzake ez pentsatzeko, guzti hau zuen erru, borondate txarra eta axolagabekeriarengatik gertatzen ez dela?

Arrasateko Zuzendari Jauna, jakin ezazu era berean ere, guk ezin dezakegula erabili ez Kutxazain automatikoak ez eta antzekorik ere, ateak estuak izateagatik, koskarengatik eta botoiak eta gainerakoak garraiegi egoteagatik.

Eta euskalduna naizen akdetik ere zerbait esan nahi dut.

Donostiako Euskadi Irratian entzun izan dut makina bat aldiz honako iragarkirik: «Sar ezazu zeure di-

rua 'Kaja Laboralean' etekin handiago...» Kontxo!!, nik uste nuen zuen Kutxa euskaraz 'Lan Kide Aurrezki' zela, baina, dirudienez, askotan, bakarrik jartzen duzue apai-garri gisa.

Sukurtsal gehienetan (Iruñean behintzat) ikusi ahal ditugu honelako izkribuak. Bagenekien bai, jende asko dagoela Nafarroa Espainiatzat hartzen duena, baina zuek izatea ere. Zuen gutunak prest heltzen zaizkit beti, tolestuta gaztelaraz irakurtzen hasteko moduan, nahiz eta badakiten euskalduna naizela.

Eta azken 'txorakeria': Iruñerrian jartzen duzuen propaganda, kalerantz ematen duen aldea erdalduna da euskal aldea barrutik ikus daitekeela esanez.

Nik uste dut guzti honek baduela

konponbidea borondate on batekin, baina bitartean nahiko adierazgarria da.

Eta bukatzeko, Arrasateko Zuzendari Nagusi Jauna, saia zaitez hemendik aurrera bigarren mailako bezeroak gogoan hartzen (elbarriok izateagatik eta geure lehendabiziko hizkuntza menperatzeagatik) zeren bestela ospe txarra irabazi eta bezeroak galdu zenitzake.

Behar bezainbesteko ausardia baldin baduzu nirekin kontaktuan jartzeko, zeure sukurtsalean dauzkazu nire datuak. Izan zaitez ausarta!



Gazteendako Zokoa

Gabiraia

Accipiter nisus

Usoaren tamainakoa
Argia adimenaz
Zaila ikusteko



Harrapakari arinena

Txikia tamainaz, baina argia adimenaz, beste harrapakariekin alderatuz gero, arinena dugu gabiraia. Uso baten neurrikoa, bere ohiturek aztoarearenak dakarzkite gogora. Hala ere, soilik hegazti txikien kontra egiten du eraso. Horrela, txolarreak, zozoak, eta antzekoak dira bere hatzaparretan maizenik erortzen direnak, eta hori dela eta, askotan freta franko egin behar izaten ditu gabiraia janaria lortu ahal izateko.

Izan ere, hegazti txiki hauek, sailka elkartzen dira gabiraia ikusi orduko, aurre egin ahal izateko. Honek, orduan, zuhurtasuna érakusten ohi du, eta belearen hegaldia ere imitatzen ohi ditu hegaztiei ziria sartzeko.

Arrak janaria ematen dio emeari honek erruten duen bitartean, eta txorikumeak behin jaioak, emea arduratzen da harrapatutako hegaztiei lumak kentzen eta txikitzen.

Arrak ez ditu hegaztiak zuzenean kabitara eramaten, eta beste toki zehatz batean uzten ditu. Haraino joaten da emea, ondoren kabiara eramateko. Ohitura bitxi hau, nonbait, kabiatic arreta desbideratzeko erabiltzen dute.

KAZKARROAN

Txapelketako bertsoak

Lehendabizikoak puntua jarrita; ondorengoak, bukaera emanda.

Pozikan ote zaude
asteburuetan?
Besterik ez dut buruan
momentu honetan
gaztea gustora dabil
beti're festetan
hala jarraituko dugu
urte luzeetan

Baserritarrek herritarroi
bizia egiten digute
langile finak oso jatorrak
badira hain beste bertute
egun guzia lanean pasa
hiru pezetaren truke
kontuak kontu nekazariak
ere jan beharko dute

Estitxu Arozena

Bertsolaritzan sartu
zaigu zenbait neska
aiton zaharrei emateko
horrenbeste kezka
txapeldun egingo dira
zer nolako festa
neska horiek baino
hoberikan ez da

Euskalerrria jarri nahi dugu
independentziaren parian
baina momentuz ez dugu eta
gogoz saiatu gaitian
eman ez digute eman nahi ta
oraindik dago aidian
mende honetan ez da gertatu
hurrengoan bai agian

Xabier Silveira



Kokoteraino

IKERNE INDAKOETXEA

Etxera iritsi eta gurasoek notak eskatu zizkidaten «kaixo» eta «zer moduz?» hitz soilak baina atseginak esan aurretik. Zer egin behar nuen nik?... eman eta gertatu behar zena gertatzen utzi, errealtateari aurre egin.

Eman eta ixil ixilik nire logelara joan nintzen. Bide erdian amaren karrasia entzun nuen. Nire barrukoek ezin zuten gehiago eta «alua!» pentsatu nuen. Baina azken batean berdin zitzaidan. Ama, arduraturik, gainean jarri zitzaidan galdera piloa botatzen zuen bitartean: «irakasleak maniarik al dizu?», «ez al zeunden ondo azterketa eguntan?», «ez zinen gogoratu azterketa zenuela?», «txurian gelditu zinen? edota irakaslea erratu da

notak jartzean?». Nik arreta handiegirik gabe denari «bai» erantzuten nion.

Ama erdi negarrez etorri zen tutorearekin telefonoz hitz egiten bukatu zuenean. Nire bururako berriz gauza bera pentsatu nuen: «alua!».

Zergatik amaren dezepzio hau galdetuko duzue. Ba, oso sinplea da. Nik lehen ikasgai guztietan «bikain» ateratzen nintzen. Zer gertatu zitzaidan? Ba, oso sinplea ere; amaren seme kuttun eta ikasle ona izateaz nazkatu nintzela. Berarekin eramaten

ninduen bere lagunengana ze azkarra nintzen esateko: «Begira mutil guapo hau, nire semerik kuttunena. Denetan «bikainak»

Seme kuttuna izateaz lehertu behar nuen. Nik beste anai asko dauzkat, baina inork ez nau gaintitzen amaren buruan. Amak berarentzat nahi nau.

ateratzen ditu, beste edonor baina azkarrago da». Seme kuttuna izateaz lehertu behar nuen. Nik beste anai asko dauzkat baina inork ez nau gaintitzen amaren buruan.

Amak berarentzat nahi nau, lagunek etxera deitzen bazuten amak zera esaten zien: «ezin du atera. Ikasten ari da zuek egin beharko zenuten bezala».

Amak, nire azkartasuna buka-

tua izango zenaren beldurrez, psikologoarengana eraman ninduen. Psikologoak nirekin bukatu ondoren, nire egoera aztertu ondoren, ama deitu zuen. Ez dakit zer esango zion, baina minduta atera zen. Oso minduta. Eta zintu egin zuen ez ninduela berriz em baten eskuetan utziko. Nik, mespretxuz, «nahi duzun guztia» esan nion.

Amak ez zuen ulertu nahi; ez zuen ikusten kokoteraino ninduela. Eta egoera jasanezin bihurtu zen batetan, lehertu behar nuela iruditzi zitzaidanean, zuzen zuzen esan nion: «Zure seme kuttun eta ikasle aparta izateaz kokoteraino nago. Zuk 'fardatzeko' besterik ez nauzu nahi!». Handik bi hilabetetara eroetxean ingratsatu behar izan genuen.

Zaharrak berri

Leitza haundi, Iruñaren pare;
Madril ere nahi ginuke.

Leitza inguruko herrietan, haundi nahi eta harrotzat dauzkate leitza zarrak.

Basaburua

Beharrak erakusten du atzeko alde nola dantzatu.

Lana egin.

Urdian

Gizon adindua medikuan:

—Ezkerreko bernako minez nabil aspaldidanik.

—Urteak, gizon, urteak!

—Ze urte ta ze demonio! Besterik ere adin berekoa da eta ez dit ba minik ematen!

LETRA ZOPA

Aurki itzazu letra zopa honetan Aezkoa ibarreko udalerrien izenak. Herrion izenak ezker eskuin, eskuin esker, goitik behera, behetik gora eta diagonalean irakurrita agertuko zaizkizu.

A U K O E Z A R A B R O
I B I G L A T O E N T R
A R A T E P A X S A O B
D L E U T Z F B E R H A
L U J O R E S P A I G I
A K E X K R E S R E A T
R O B K I R E I K S A Z
R E I H R E B G D A K E
A T R U B E A R A O G T
G B A E R N A M A I R A
A B L R I F E L R U N Z
A U I R I G A R A I O A

Bizi Bizian

PATXI ULAIAR / BEORBURU

Ardibideak artaldeak udalekuetatik negulekuetara eramateko erabiltzen diren bideak dira. Ez da, beraz, askotan uste eta esan den bezala, iparretik hegora egiten den bidea, baizik eta menditik zelaira.

Ardibideak legez oso babes-tuak dira. Herriko bideak bezala dira, baina Nafarroako Gobernuaren administraziopean. Garai batean, herri bakoitzak bere arribideak zaintzen zituen, eta horren truke zerga antzeko zerbait kobratzen zuen. Gerostik, jauntxo eta lurren jabeak gero eta gutxiago errespetatzen hasiak ziren, eta arribideei zegozkien lurak eureganatzen zituzten.

1926an egin zen Nafarroako arribideen azterketa zehatza. Orduko Diputazioko mendi zuzendaria, Gabriel Nagore, arduratu zen horretaz, eta liburu batean jaso zuen merinalde bakoitzeko arribideen egoera. Orduan egin dako mapan nolabaiteko egitura eman zien arribideei, eta garrantzian araberako sailkapena egin zen.

ZABALERAREN ARABERA SAILKATUTA


Horrela, lau maila paratu zuten: erret arribideak, gutxienez berrogei metroko zabalera dutenak; trabesak, aurrekoak elkarrekin lotzen dutenak, eta gutxienez hogeitamar metroko zabalera izan behar dutenak; *ramales* edozein herritatik lehendabiziko arribideraino joaten direnak; eta *pasadas* beste guztien artean daudenak. Azken horiek gutxienez hamabost metroko zabalera behar dute izan.

Erret arribideak zortzi dira: Erronkaritik Bardeetara joaten dena, Otsagitik Zarrakasteluraino joaten dena, Taustetik Urbasa eta Aundimendira joaten dena, Milagrotik Aezkoara arteko bidea egiten duena, luzeena azken hau, Zierzoko mendietatik Ejea de los Caballeroseraino joaten dena, Tuteratik, Orbaibarretik Aundimendiren artekoa, Imasetik Iratxera joaten dena eta Probintzietako arribidea izenekoa, Noaindik Tolosako mugaraino joaten dena.

Azterketa honetan ere arribide guztien luzera orokorra zehaztu zen. Erret arribidetan 900 kilometro zenbatu ziren, eta beste guztien artean, 2.600 kilometro.

MUGA ZEHATZAK PARATU Lan hori eskuetan, arribide guztiak mugatzea deliberratu zen orduan, eta muga zaharrak ez zeuden tokietan berriak paratu zituzten. Denetan, probintzietakoetan ezik. Izan ere, lehengo garaiko zona honetan lurrek egitura desberdina zuten, ez bait zegoen lursailen arteko hesirik. Komunala, aldiz, itxia zegoen.

Gero eta beherago, ordea, orduan eta lursail itxiagoak. Mendia, ordea, irekita dago. Alorrek itxiak badira, beraien artean bide



Ardibideak, altxonbideak edo abelbideak izan dira mendetan zehar artaldeak udalekuetara negutokietara eramateko erabili izan diren bideak. Ederki ezagunak duela gutxi arte, kamioiek

eta nekazaritzak ezabatu zituzten ezarian bide hauek, batzuk ia desagertarazi arte zenbait puntutan. Bide hauek kontserbatzeko eta beren garrantzia aldarrikatzeko elkarteak sortu berri da Nafarroan.

Ardibideen bila

estua uzten dute, eta hor berrogei metroko zabalera paratzera behartzera ez omen ziren ausartu garai hartakoak.

Egindako azterketa zehatza eta trinkoa izanik ere, bertan ez dira agertzen arribide guzti guztiak. Adibidez, Landetaraino joaten ziren Erronkariko artzainak, eta horrelako bideak ez daude jasota. Nafarroako iparraldera ere badaude Nagoreren mapan ageri ez diren bide franko ere.

Ramon Elozegi elkartearen partaideak azaltzen duenez, arribide guztiak zehaztea eta mapa batean paratzea lagungarria izan da gal ez daitezen. «Garai hartan

oso bide garrantzizkoak ziren, eta urte askotan inori ez zitzaion bururatu ere egin deskribapen on bat egitea. Orduz geroz, baina, garrantzia honek behera egin zuen nabarmen, nekazariak abeltzainak gailendu zituztelako, eta nahiz eta mugak zehaztuta izan, muga asko desagertu egin dira, larre eta soroek janda».

OINEZ IBILTZETIK KAMIOIETARA

Hori dela eta, duela hamabost bat urte, artzainak kamioiak hasi ziren erabiltzen, errezago eta merkeago zelako. Hala ere, betiko era ez zen sekulan ere galdu, Elozegik azal-

tzen duenez. «Garraioa garestitu zen ondoren, eta artzainak berehala konturatu ziren ez zela modurik egokiena, ardiei ondoeza sortzen zielako bidaiak. Kasu batzutan ere hil egiten ziren».

Hori dela eta, arribideen erabilerak gora egin du azken urtetan berriro, baina bereizi egiten dira artaldeak. Ardiak gaizki eta ahul badaude, artzainak bereiztu eta kamioiez bidaltzen ditu. Gai nontzekoak oinez eramaten ditu.

Hain zuzen ere, hemen du arduraren handien elkarteak. «Zergatik ez dira oraindik gehiago erabiltzen arribide hauek? —dio

Elozegik—: gaizki daudelako. Oso pasabide estuak dira, eta artzainak bildur dira askotan ardiak edukitzeko leku egokia izateko. Adibidez, bi artalde elkartu eta nahasten badira, izugarritzko arazoa da gero bakoitzaren ongi bereiztea, eta askotan egun oso bat galdu behar duzu horretarako. Horrezaz gainera, litekeena da, gauan, ardiak sakabanatzea, eta berriro biltzeko orduak eman behar dituzu. Arazo guzti horien dako soluziobidea estalpe edo barrutiak paratzea litzateke, artalde eta artzainek atsedean egiten duten lekuetan lasai egon ahal izateko».

ARTZAINEKIN ERE HARREMANETAN

Guzti hau bideratzeko, eta indarra egiteko, urte honen hasieran sortu zuen elkarte horren inguruan zebilen talde batek. Jadanik hasiak dira lanean, eta lehendabiziz, Probintzietako eta Erronkariko arribideetan egin nahi dute lana. «Bertaraino joateko gonbitea egin nahi digou jendeari, ze arazo dauden eta zein izan daitekeen soluziobidea ezagut dezaten. Behin ezagututa, errei-

Artzainak kamioiak erabiltzen hasi zirenean, berehala konturatu ziren hori ez zela modurik egokiena, ardiei ondoeza sortzen bait zien bidaiak. Hil ere egiten ziren batzuk.

bindatuko egingo dute, seguru!» —dio Elozegik—.

Halaber, artzainekin ere harremanetan hasteko asmoa dute, arazoak zeintzu diren zehatzago ezagutu ahal izateko. Aurretik eginak dituzte elkarteok haiekin ibilbideak, eta ez dira batere samurrak, antza. «Behin Tausetik Aundimendira joan ginen Argedaseko artzain batekin, eta Lezaun aldera oso gau gogorra egokitu zitzaigun. Euria eta hotza, nahiz ekaina izan. Orduan, eta normalean geldirik egoten badira ere, ardiak mugitu egin zitzaizkion, eta gau osoa ardien atzetik ibili zen, bustita eta hoztuta. Hori, estalpe eta barruti batekin, erraz konpon daiteke».

Beste arazoa da denboran zehar jandako zati eta arribide puskek. Indarrean dagoen legea garbi da horri buruz: arribide bat ezin da sekulan ere moztu edo gaitzetsi. Hala ere, franko dira eraikin berriak edo soroek moztutako zatiak. «Guk ez dugu jatorritzko luzezabalera guztia eskatu nahi —dio Elozegik—, baina exigitu nahi duguna da inork ez galeratzea arribidea».

Urteen poderioz, bitxikeri franko sortu dira bideotan, eta Iruñean, kasu, Nafarroako Unibertsitate pribatuko kanpusea bertan arribide baten eremuan dago eraikia.

Santi
Crespo

Txirindularia

«Afizionatu batzuek prentsa asko dute»

A. BARANDIARAN / ALTSASU

EGUNKARIA.— Zure bigarren denboraldi honetan iaz baino azkoz hobeki ari zara. Somatu duzu profesioaletan lehendabiziko eta bigarren urteen arteko desberdintasunik?

SANTI CRESPO.— Aldaketa gogorra afizionatu mailatik profesioaletara pasatzen zarenean izaten da. Kilometroak dezente igotzen dira, eta korritzeko era ere desberdina izaten da. Aurten somatu izan dut progresio nabarmena, eta arnasa hartzen hasia naiz. Ongi ikusten dut neure burua, eta hemendik aurrera emaitzak heldu behar dira.

EGUNKARIA.— Euskal Herriko Itzulian zure taldeko eta zure adineko Mikel Zarrabeitia izan da errebelazioa. Nola ikusi duzu orokorrean proba?

CRESPO.— Laisterketa oso borrokatua eta gogorra izan da. Oso eguraldi txarra, kristorenak jasan behar izan dugu, bai bernatan nola hotzagatik. Mikel Zarrabeitia izugarri ongi aritu da, eta errebelazioa izan da, dudarik gabe, berak ere ez bait zuen uste hain ongi ibili zitekeenik.

EGUNKARIA.— Euskal Herria osoan jarraipen handia izan du betidanik afizionatu mailak, eta urtero ateratzen dira 'txapeldun' berriak. Batzuetan, baina —zuen kasu lekuko— hain ezagunak ez direnek egin dute aipagarria profesioaletan. Zergatik?

CRESPO.— Profesioaletara pasatzean, afizionatu guztiek mail berbera daukagu. Batzuek prentsa asko dute, eta ezagunagoak dira, hain zuzen ere prentsagatik edota lasterketa asko irabazi dutelako. Hori, gero, ahaztu egiten da. Afizionatuetan egindakoak ez du zerikusirik profesioaletan,

huts hutsetik hasten bait zara berriro. Txirindularitzan bigarren aldiz hasiko bazina bezalakoa da profesioaletan aritzea. Afizionatuetan hainbeste prentsa izan ez dugunok orain frogatu behar dugu zer egin dezakegun, eta hori errepidean erakusten da.

EGUNKARIA.— Baina afizionatuen arteko prestaketak ere izango du zerikusirik ondoren profesioaletan.

CRESPO.— Afizionatuetan prestaketa oso antzekoa da. Hala ere, oso desberdina da talde handi batean edo bigarren mailako beste

Zuzendariak lasterketan bertan erakusten dute ongi nolakoak diren. Minguezek badaki txirindulariak estutzen, eta badaki bakoitzak zenbat eman dezakeen. Horren arabera eskatzen dizu.

batean egotea. Lehendabizikoan errezagoa da laisterketak irabaztea, atzetik kristoren laguntza duzulako. Beste taldeetan, noiz edo noiz ustekabea eman dezakezu, baina hori ez da egunero gertatzen.

EGUNKARIA.— Gazteak zaindu nahi zituela esan du Minguezek, eta zuek ez duzue Espainiako Itzulian parte hartuko. Gazteak zaintzearena, zer da, zuzendari batzuek hartutako erabakia, edo txirindularitzan nagusitzen ari den joera?

CRESPO.— Nere ustez, garbi dago joera hori dela logikoena.

Santi Crespo txirindulari altsasuarra lehendabiziko postuetan hasi da agertzen bere bigarren denboraldian profesioaletan. Euskal Herriko Itzulian bere taldeko bigarrena izan zen, hogeitaseigarren postuan, eta izen ospetsu askoren aurretik. Baigordin

amaitu zen Nafarroako itzuli bateko etapa zaletu askok gogoratuko dute oraindik, Crespok irabazia, eta Lezaun eta Lazpiurren arteko neurria ezin interesgarriago baten erdian. Orain, profesioaletan hirurak Crespok irabazi die lehendabiziko etapa.



Euskal Herriko Itzulian.

ANDONI CANELLADA

Emaitzak agerian daude, eta zuzendariak garbi dute lehendabiziko urteko profesionalak Espainiako Itzulia korritzen baldin badu, ondoren ez duela barruan duen guztia eman ahal izango.

Orduan, haiei ere ez zaie komeni. Hori, baina, ezin da egin leku guztietan. Talde handiko zuzendari batek badaki nolabaiteko ziurtasuna baduela, baina bigarren mailakoek, emaitzak behar dituzte taldeak irauteko.

EGUNKARIA.— Beti esan dute

Minguez zuzendari hoberenetakoa dela. Zertan nabarmentzen da zuzendari ona?

CRESPO.— Minguez zuzendari handia da, txirindulari bakoitzak eman dezakeena ongi ezagutzen duelako. Laisterketatik kanpo ere oso ongi tratatzen du jendea. Hala ere, zuzendariak lasterketan bertan erakusten dute ongi nolakoak diren. Minguezek badaki txirindularia estutzen, eta badaki bakoitzak zenbat eman dezakeen. Horren arabera eskatzen

dizu. Horrek bultzatzen du txirindularia gehiago ematera, eta segurtasuna izatera.

EGUNKARIA.— Amorebietan izan zuen erorketak laisterketatik kanpo utz dezake Marino Lejarreta. Nola ikusi duzue gertaera tropelaren barruan?

CRESPO.— Nik neuk ikusi nuen erorketa, eta ezagutu gabe zehazki nola zegoen, denok ongi asko genekien erorketa oso larria izan zela. Aritu ginen elkarrekin hizketan, eta denok uste genuen Marinok ezin izango zuela gehiago korritu. Pena bat da, Marino

Nik Marino Lejarretaren erorketa ikusi nuen Amorebietan eta ezagutu gabe nola zegoen, denok bagenekien oso larria izan zela. Denok uste genuen Marinok ezin izango zuela gehiago korritu.

gizon ona delako, bai laisterketan nola laisterketatik kanpo ere. Jatorra eta zintzoa da, eta txirindulari guztiek dute gustoko.

EGUNKARIA.— Aurtengo proben artean izango duzu baten baten gustokoagoa, zerbait egiteko.

CRESPO.— Bai, gustatuko litzaidake Komunitatearen Tourrean zerbait polita egitea, iraila aldera. Hor ez dute parte hartzen txirindulari 'handiek' eta gazteek beti badugu aukera polita zerbait egiteko. Bicicleta Eibarresa ere oso gustokoa daukat. Baina txirindularen gainean ikusi eta erakutsi behar dugu.

NOSKI
JATOR

ZALDI ERBA

